

40

URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK

CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus

COP26ko emaitza kontuan hartuta, nola bilakatu dezakegu ekoantsietatea ekimen klimatiko?

Une historiko bat bizi dugu munduan, eta hori erabakigarria izango da giza espeziearen biziraupen kalitaterako. Klima-krisiak ez dio ekosistemari bakarrik eragiten, gure osasunari eta ekonomiari ere eragiten dio zuzen-zuzenean.

Gobernuek urteak daramatzate neurriak negoziatzen berotze globala mugatzeko eta, hartara, krisi klimatikoaren inpaktuak murrizteko. Hala ere, Nazio Batuek urtero ospatzen dituzten klimaren goi-bilerek, "COP" izenez ezagutzen direnek, ez dituzte oraindik tenperaturaren igoera eta horren ondorioak geldiarazteko behar diren helburuak betetzen.

Bien bitartean, gero eta pertsona gehiagok jasaten dute "ekoantsietatea", egoera horren aurrean ziurgabetasunak, inpotentziak eta beldur kronikoak eragiten duen inpaktu psikologikoa. COP26aren ondoren, zein norabidetan egingo dugu aurrera? Zer tresna ditugu ekoantsietate hori ekintza klimatiko bihurtzeko?

Profesores:



Irene Baños Ruiz

Periodista y comunicadora especializada en temas de medioambiente y cambio climático

Irene Baños Ruiz komunikatzaile eta multimedia-kazetaria da, eta ingurumen- eta klima-aldaketetan espezializatuta dago. 2016. urtetik hona, Deutsche Welle (DW) Alemaniako nazioarteko irrati-difusio katearekin kolaboratzen du aldizka. Nazio Batuen Klimaren lau goi-bileren berri eman du jarraian DWrentzat (COP23 - COP26). Gainera, 2021. urtearen hasieratik, ingurumen-kazetaritza, informazioarako sarbidea eta adierazpen-askatasuna sustatzen ditu Latinoamerikan, DW Akademie erakunde alemaniarretik, komunikabideentzako nazioarteko lankidetzan aitzindari baita. DWn egiten duen lana beste bitarteko eta erakunde batzuekiko lankidetzekin konbinatzen du. "Ecoantsias" (Ariel, 2020) liburuaren egilea da, eta "Che cosa è la bioeconomia"-ren egilekidea (Edizioni Ambiente, 2019).